

OBSESIOA

Naia Aiestaran Iparragirre

Beasain

Pasilloaren ondoko eserlekuan nago, geldi-geldi, gerrikoa estu-estu lotuta. Amaiak eta Kattalinek leihoaren ondoan nahi zuten, eta sesiorik ez izateko, aurrez erabakita ekarri dute: bidaiaren lehen zatian Kattalinentzat izango da leihoa, eta bigarren zatian, berriz, Amaiarentzat. Pozarren daude; hegazkin batean bidaiatuko duten lehen aldia da, eta ilusio ikaragarria egiten die. Nik ez dut uler-tzen; sekula ez zait gustatu leihoaren ondoan jar-tzea. Zenbat eta urrutirago egon, hobe. Lurretik hamar mila metrora nagoela pentsatze hutsak ondoezik jartzen nau, eta leihoaren ondoan joate-ak, nahi gabe, pentsamendu horretara eramaten nau. Gorroto dut hegazkinean ibiltzea. Txiki-txikia nintzenetik diet beldur ikaragarria leku garaiei. Horregatik, hegazkinean bidaiatu izan dudan aldi bakanetan, erronka handi bati aurre egin diodala iruditu izan zait. Gaurkoa ere halaxe da niretzat: erronka handi bat, alabak pozik ikustearren aurre egingo diodan erronka handi bat.

Bagoaz. Ahaztua nuen zer nolako zarata egiten duen hegazkinak aireratzera. Ikaragarria da belarrietara sartzen den burrunba. Begiak itxita nago, hortzak estututa, eta eserlekuari gogor eutsita. Izugarria da hegazkinaren dardarizoa; mila aldiz ibiliko banintz ere, ez nintzateke honetara ohituko. Baina ondo disimulatzen ari naizela uste dut. Ez diet esan alabei hegazkinean ibiltzeak izugarrizko beldurra ematen didanik; ez diet esan, halaber, eurekin batera bidaiatzeak beldur hori areagotu egiten didanik. Ez diet nire izua transmititu nahi. Txikia nintzela, amak esaten zidan beldurrari aurre egiteko gauza politetan pentsatu behar zela. Eta halaxe egingo dut.

Baretu da hegazkinaren dardarizoa; isildu da zarata itsusia. Lasaixeago nagoela uste dut, erronkaren lehen zatia igaro baita; lurreratzera egingo diot aurre bigarren zatiari. Badatoz hegazkineko zerbitzariak. Coca Cola bat eskatu dit Kattalinek. Ezetz esan diot, hegazkinean kontsumitzea oso garestia dela. Amonak egindako pasta batzuk atera dizkiot magalean daramadan poltsatik; isilik gelditu da, eta musika entzuten jarraitu du, MP4aren sokak belarrietara eramanda. Pasilloaren bestaldeko gizonak te bat eskatu du. Ingelesez egiten du, baina garbi dago ez duela ingelesa ama-hizkuntza, den-dena primeran ulertu diot-eta. Arabiarra dela esango nuke; gure etxe parean dagoen denda arabiarreko gizonaren antza hartzen diot. Berrogei bat urte izango ditu. Argala da oso. Kasaka zuri bat darama soinean. Deseroso

dagoela dirudi; asko mugitzen da. Eskuetan daukan katiluaren dardarizoa beldurtzeko modukoa da. Pixka bat lasaitze aldera eskatuko zion tea hegazkineko zerbitzariari, baina ez dakit eskuetako dardara kentzeko adinako efekturik egingo dion. Uste dut konturatu egin dela berari begira nagoe-la. Irribarretxo bat egin dit.

Burua jiratu, eta leihorantz begira jarri naiz, Amaiari eta Kattalini begira. Lasai daude, beraien mundu zoragarrian. Manchesterren igaro behar dugun aste liluragarrian pentsatzen ariko dira. Esperientzia ahaztezina izango dela iruditzen zait. Nire begien parean daukat Manchesterri buruzko aldizkari bat; begirada bat emango diot, ondo etorriko zaigu-eta gure egonaldirako.

Bat-batean, mugimendu zakar bat sumatu dut nire alboan. Gizon arabiarra da: eserlekutik altxa da, eta hegazkinaren atzealdera doa. Atzeko eserleketan doan norbaitekin hizketan ari da, isilpeka. Lepoa ahal dudan guztia luzatu dut, baina ez dut ikusten norekin ari den hizketan. Badator berriro, presaka. Eserlekuan eseri da, eta ordulariari begiratu dio. Geroz eta mugimendu arraroagoak egi-ten ditu, geroz eta sarriago.

Ez zait egoera hau gustatzen. Geroz eta urduria-go nago. Gauza arraroak datozkit burura, gauza oso arraroak. Nahiago nuke nire obsesio bat besterik izango ez balitz. Baina ez, hau benetako zerbait da. Ordulariari begiratu diot nik ere: ez da ezer falta hegazkinak lur hartzeko, erronkaren beste erdiari aurre egiteko. Aurrez, beste erronka zailago

bati aurre egin beharrean izango naizela iruditzen zait, ordea. Ez dakit zer egin. Buruan darabilkidan honi aurre egitea ezinezkoa da. Gertatu behar badu, gertatu egingo da. Nik ezin dut ezer egin. Alabei begiratu diet. Kattalinen begirada eta nirea gurutzatu egin dira: irribarre egin diot, ezer gertatuko ez balitz bezala. Amaia lotan dago, goxo-goxo, nire estutasunaren aztarrenik ere hartu gabe; ez da lekuz aldatu, ez da leihoaren ondoan jarri, konturaterako, loak hartu baitu. Negarrez lehertzeko zorian nago, garrasika hasteko zorian.

Belarriak itxi zaizkit berriro; jaisten ari gara, lurreratzen ari gara. Hegazkinak egiten duen jauzi zakar bakoitzeko, gizon arabiarrari begiratzen diot. Jada ez du atzera begiratzen. Eskuak buruan jarrita dauzka, eta besoak belaunetan. Otoitz egiten ari dela ematen du. Garbi dago: zerbait txarra egitera doa. Gureak egin du...

Hegazkinaren gurpilek lurrarekin bat egitean atera duten zarata zakarra sekula baino politagoa iruditu zait. Alabei begira nago: osorik daude biak; osorik nago ni ere. Gizon arabiarra atzera begira dago, berriro, baina oraingoan, barrezka ari da, norbaiti barrezka ari zaio. Burua jiratu dut nik ere: aho-zabalik nago, ikusten dudana sinetsi ezinda. Hogeit bat hilabete izango ditu. Aspaldian ikusi dudan umetxorik politena da. Amaren besoetan dago, hegazkinetik ateratzeko desiratzen, aitatxoren besoetara joateko desiratzen.

Obsesionatu egin naiz, zoratzeraino obsesionatu naiz. Eta, orain, lotsatuta nago oso. Ez dakit inor

konturatu den zer gertatu zaidan. Agian ez. Baina neure buruarekin latsa-latsa eginda nago. Gaizkile bat dela pentsatu dut; hegazkina lehertzera etorri den kamikaze bat dela pentsatu dut. Baina, ni bezalaxe, hegazkinak maite ez dituen gizon bat besterik ez zen, emazte eta alabatxoaren ondoan bidaiatu ezinak deseroso sentiarazi duen gizon bat besterik ez.

Kattalinen euforiak ezustean harrapatu nau. “Iritsi gara!” dio, pozaren pozez. Momentu batez, gertatu zaidana alabei kontatzeko gogoia sentitu dut. Baina isilik gelditu naiz. Nire obsesioaren berri ez ematea erabaki dut. Hobe izango da horrela.